En función de los estudios anteriormente realizados, se fija un sistema de convalidación y se determinan las asignaturas que debe cursar el interesado. El nuevo grado comenzará en abril de 2010, y según los contactos y aproximaciones tenidas hasta la fecha, auguran un futuro prometedor para este tipo de formación.

Mondragon Unibertsitatea pretende así ofrecer un nuevo servicio a muchas personas que hasta la fecha no podían cursar estudios por la imposibilidad de acu-

ENPRESAGINTZA

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

# 50 URTE GOGOAN HARTZEKO ETA OSPATZEKO

**AÑO DE CELEBRACIONES EN LA FACULTAD DE EMPRESARIALES**
Para celebrar el cincuenta aniversario se realizarán muchísimas actividades en Oñati. Además, se presentará el libro sobre los 50 años de ETEO, escrito por el oñatiarra José Antonio Azpiazu.

1960AN SORTU ZEN ETEO KOOPERATIBA, ETA ORDUTIK HONA OÑATIKO, DEBAGOIENEKO ETA EUSKAL HERRI OSOKO FORMAZIOAN ZERESAN HANDIA IZAN DU. MONDRAGON UNIBERTSITATEAN BARNERATU ZEN 1997AN ETA ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA IZENAZ BATAIATU ZUTEN. AURTEN, BERRIZ, IZEN BERRIA ESTREINATU DU, ETA AURRERANTZEAN ENPRESAGINTZA FAKULTATEA IZANGO DA

Oñatiko herriarekin lotura estua izan du Larraña auzoko fakultateak, herritik asko jaso du eta herriari ere eman dio. Horrexegatik guztiagatik, eta urteurren borobila ospatzeko asmoarekin, Enpresagintza Fakultateak ekitaldi ugari antolatu ditu aurten. Ekitaldiak askotarikoak izango dira, eta Donostian, Bidasoako Campusean eta Oñatin egingo dituzte. Ikasleentzat, ikasle ohientzat, unibertsitateko komunitate guztiarentzat, enpresentzat eta herritar ororentzat antolatu dituzte ekintzak, eta horien artean, besteak beste, Jose Antonio Azpiazuren liburua aurkeztuko da.

## URTEURRENEKO ZIGILUA FATXADAN

Urteurreneko zigilua Larraña auzoko eraikinean egongo da 2010ean, gogoratzeko dagoeneko igaro direla 50 urte kooperatiba sortu zenetik. “Zigilua edo irudia urre kolorekoa da, urrezko ezteiak eta ospakizuna irudikatzeko asmoz. Bestalde, hatz marka bat dauka, gure nortasuna adierazteko. Leloak, berriz, etorkizunera begira gaudela adierazten du, esanez 1960tik ETEO eta 2010etik aurrera Enpresagintza izango garela”, eman digu aditzera Amaia Aizpuru Enpresagintza Fakultateko Marketin eta Komunikazio arduradunak.

> Ospakizun urtea izango da aurtengoa Oñatiko fakultatean

Ospakizunei dagokienez, askotarikoak izango dira. Urte amaieran, azaroaren 18an, Donostiako Kursaal Jauregian ekitaldi berezia egingo da. Era berean, Bidasoan eta Oñatin jardunaldiak egingo dituzte, enpresa arloa eta berrikuntza uztartzeko asmoz. Gainera, Oñatiko ikasleekin Euskadi Irratiko saio bat grabatuko dute, Joxeina Etxebarriarekin seguruenik. “Apirilaren 23an fakultatearen eguna ospatuko dugu eta egun horretan ekintza ugari izango dira, baita kontzertu bat ere, herriari eskaintzeko”. Izan ere, Enpresagintza Fakultateko ordezkariek Oñatiko herria kontuan hartu dute programatutako ekintzetan.

## ERAIKIN BERRIAREN INAUGURAZIOA

Gainera, 50.urteurrena borobiltzeko, Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateak eraikin berria inauguratuko du urrian. “ETEO zaharra Larrañan geratuko da eta gu Ibarrako gunera joango gara etapa berri bati hasiera emateko”. Jose Antonio Azpiazuren liburua ere aurkeztuko da aurten. Kontuak kontu, ospakizun urtea izango da aurtengoa Oñatiko fakultatean.

# MASTER BERRIA: HEZKUNTZA TESTUINGURU MULTIKULTURAL ETA ELEANITZETAN

**NUEVO MASTER OFICIAL EN HUHEZI**
El nuevo master preparada por HUHEZI se podrá realizar en euskera o en castellano. La metodología se basará en la solución de problemas y en el desarrollo de proyectos.




ANECA ETA UNIQUAL EBALUAZIO AGENTZIEK ONTZAT EMAN DUTE HUHEZI-K PRESTATUTAKO MASTER BAT: HEZKUNTZA TESTUINGURU MULTIKULTURAL ETA ELEANITZETAN. HORTAZ, DATORREN IRAILEAN FAKULTATEAK MASTER HORI ESKAINIKO DU, EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ, ON LINE MODALITATEAN

Master berriak eleaniztasuna eta kulturartekotasuna landuko ditu, bi ibilbiderekin: batetik, masterra bera egin ahal izango da; eta, bestetik, balio izango du ikerketa-ibilbidea egiteko, orain arte doktorego ikasketak zirenak. Masterra erabat on line izango da.

> Master berriak eleaniztasuna eta kulturartekotasuna landuko ditu, bi ibilbiderekin: batetik, masterra bera egin ahal izango da; bestetik, balio izango du ikerketa-ibilbidea egiteko

**PROFESIONALAK PRESTATZEKO**
Master honek prestatu nahi ditu profesionalak, gai izan daitezen kudeatzeko hezkuntza esparru asko, aurrez ikusteko ikasleen hezkuntza premiak, antzemateko ikerkuntza arazoak eta egokitzeko gizarte aldakorretan.

Masterra prestatu da bereziki espezialista izan nahi dutenentzat eleaniztasunean eta kulturartekotasunean, irakatsi nahi dutenentzat hezkuntza arautuan eta ez arautuan, prestatzaileak trebatu nahi dituztenentzat, gai didaktikoak diseinatzen dituztenentzat eta gai hauetan sakondu nahi dutenenetzat (gurasoak, elkarteak...).

**EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ**
Ikasleak aukera izango du masterra euskaraz nahiz gaztelaniaz egiteko, bere profil edo nahien arabera. Metodologia, berriz, erabat aktiboa izango da, oinarrituta arazoen konponketan eta proiektuen garapenean.

Bada beste master bat homologatze bidean: Zelan garatu eta kudeatu berrikuntza metodologikoko proiektuak hezkuntza erakundeetan. Bai Anecak eta baita Uniqualek ere onartzen badute, guztira hiru master ofizial izango ditu HUHEZIk irailean, hirugarrena indarrean baitago: Unibertsitate master ofiziala irakasle gisa aritzeko.

## LANDUIZU LAGUNTZA-ZERBITZUA, BERRIRO INDARREAN

Bigarren urtez jarraian HUHEZIk indarrean jarri du Landuizu laguntza-zerbitzua, euskaraz makal dabiltzan ikasleak trebatze aldera. Iaz 40 ikaslek hartu zuten parte programan. Horietatik, 26 neska eta 14 mutil izan ziren; 27 irakasle-ikasketetakoak eta 13 Ikus-entzunezko Komunikaziokoak. Landuizu egitasmoak konpromisoa eskatzen dio ikasleari, beronek bete dezan tutorearekin adostutako plangintza. Aurten Iñigo Arteatx eta Idurre Alonso irakasleek daramate Landuizu programaren ardura.

## KOMUNIKALDIAK: TELEBISTA INTERNETEN AZTERGAI

Martxoaren 10ean Komunikaldiak izango dira fakultatean, eta aurtengoak Telebista Interneten izango du aztergai. Goizean Ruben Sanchez adituak azalduko du zertan den telebista Interneten. Ondoren, hiru kasu aztertuko dira goizeko mahai inguruan.

Arratsaldean, berriz, beste mahai inguru bat egingo da, aztertzeko euskaraz egindako hiru esperientzia: Goiena Telebista, *Bertsoa.com* eta ETB3. Gorka Juliok moderatuko du arratsaldeko mahai ingurua.

## AMAIA AIZPURU

# "ENPRESAGINTZA HITZAK HOBETO DEFINITZEN DU GURE NORTASUNA"

MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN OÑATIKO FAKULTATEAK IZENA ESTREINATU DU. SORRERAN ETEO IZAN ZEN, AZKEN URTEOTAN ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA IZAN DA, ETA AURRERANTZEAN ENPRESAGINTZA FAKULTATEA IZANGO DA. AMAIA AIZPURU AZPEITIARRA DA FAKULTATEKO MARKETIN ETA KOMUNIKAZIO KOORDINATZAILEA

Izen berria gizarteratzeko komunikazio estrategia zehatza planifikatu du Enpresagintza Fakultateak, eta ETEOren sorreraren 50.urteurreneko ekitaldiak baliatuko ditu izen eta irudi berria hedatzeko.

**ETEO sortu zela 50 urte igaro ondoren, izenez aldatzea erabaki duzue, zergatik?**

Gure kooperatiba jaio zen 1960 inguruan. Hasieran ikasketa teknikoak eta profesionalak eskaintzen zituen, eta ordutik hona asko aldatu da. Geroago, Mondragon Unibertsitatearen partaide bihurtu ginen, MUko fakultate izatera igaroz, eta Bidasoako Campusa ere sortu genuen. Azken urteotan Enpresa Zientzien Fakultatea izan gara, baina izen horrek ere muga ugari sortzen zizkigun; gainera aldaketa sakonak izan ditugu arlo guztietan. Horrexegatik aldatu dugu, beti ere aurrera begira gaudelako eta aurrerantzean Enpresagintza fakultatea izango gara.

**Zergatik Enpresagintza?**

Bi hitz elkartuz sortu dugu izen berria, enpresa eta ekintza. Bi hitzek lotura estua dute gure aktibitatearekin. Enpresa dago lotuta aktibitate industrialarekin eta zerbitzuekin. Eta egintza edo ekintza hitzak zerikusia du iniziatibarekin, aktibitatearekin, dinamismoarekin, aldakorra den zerbaitekin. Egoera berrietara egokitzeko gaitasuna dugu eta industria eremuan sortzen diren berrikuntzetara oso ondo moldatzen gara. Enpresa lotzen dugu berrikuntzarekin eta horrexegatik guztiagatik uste dugu enpresagintza hitzak hobeto definitzen gaituela.

**Marketin eta komunikazio ikuspegitik, izen berriarekin salto kualitatiboa egin nahi duzue.**

Gainerako unibertsitateetatik bereiztu behar gara. Aldaketarekin aldendu nahi gara enpresa zientzien ikasketa ohikoen izendapen tradizionaletik, askoz ere kontzeptu zabalago batera jauzia eginez. Ekintzailetasuna, talde lana eta etorkizuneko proiektuen aldeko apustua eginez. Mondragon Unibertsitatearen irakasle ereduaren berezko baloreak gureganatuz. Hori ere *naming*-ean islatu nahi izan dugu.

> *"Bi hitz elkartuz sortu dugu izen berria, enpresa eta ekintza. Bi hitzek lotura estua dute gure aktibitatearekin"*

**Erantzuten dio marka berriak etorkizuneko proiektuari?**

Etorkizuneko proiektu guztiak Enpresagintza Fakultatean amesten ditugu. Horrek ez du esan nahi aurrekoa ahazten dugunik, 50 urteko esperientzia dugu, ikasle eta irakasle asko igaro dira hemendik eta asko ikasi dugu. Horrexegatik indarrez erakutsi behar dugu nora goazen. Une estrategikoan gaude, izan ere instalazio berriak estreinatuko ditugu Ibarran. Nolabait, aldaketa guztia hobeto eta errazago irudikatuko dugu, ilusio berriekin eta izen berriarekin. Eten bat egingo dugu, eta asmatu dugulakoan gaude.

**Nola gizarteratuko duzue?**

50. urteurreneko zigilua erabiliko dugu, lelo berezi batekin azaltzeko izenaren aldaketa. Zigiluak urre kolorea du, urrezko ezteiak irudikatuz. Era berean, hatz marka bat ere badu, gure nortasuna islatzeko. Hala ere, izen berria gizarteratzeko komunikazio estrategia berezia jarri dugu abian. Oñati, Debagoiena eta Euskal Herrira hedatuko dugu. Besteak beste, Kursaalen egingo dugu ekitaldi berezi bat, Bidasoan eta Oñatin jardunaldiak egingo ditugu, Euskadi Irratian saio bat egingo dugu... eta horietan guztietan Enpresagintza Fakultatearen izena gizarteratzen ahaleginduko gara.

**Komunikazio erremintak ere erabiliko dituzue zuen izen berria hedatzeko.**

Ohiko medioak erabiliko ditugu, baina baita 2.0 komunikazio korporatiboa ere. Gaur egun fakultate sozialagoa eta parte-



ARGAZKIA: J. ARANZABAL

hartzaileagoa bilakatu nahi dugu, horretarako hainbat estrategia erabiliz; web sozialaren gaineko seminarioak, youtube kanalak, edukien sindikazioa, mikroblogginga eta wikiak erabiliko ditugu 2.0 fakultatea lortzeko, non gutxinaka gure zerbitzuetan, administrazioan, liburutegian, barne eta kanpo komunikazioan software soziala sartzen joango garen. Helburua beti izango da ezagutza eta partekatzea eta erabiltzaileen inplikazioa lortzea.

**AMAIA AIZPURU**
azpeitiarra da fakultateko Marketin eta Komunikazio koordinatzailea.

**Zein da Enpresagintza Fakultatearen kokapena Mondragon Taldean?**

Mondragon Taldearen barruan egotea guretzat abantaila handia da. Enpresarekin lotura duen fakultatea garela antzematen du gizarteak. Posizionamendu hori oso egokia da. Orain, Mondragon Taldeko gestio arloko ikerketa zentroa, MIK, Enpresagintzako ikerketa espazio bihurtuko da. Euskadiko gestio arloko ikerketa zentro handiena bilakatuz.

**Gainerako Unibertsitateekin alderatuta, (Deustu, Nafarroa, EHU...) nola dago posizionatuta zuen fakultatea?**

Gure abantaila da aldakorragoak garela, hobeto egokitzen garela berrikuntzetara, Bolognara, metodologia berrietara...hori guztia islatu behar dugu. Azken finean, enpresa mundua ulertzeko modu desberdin bat dugula, berrikuntza eta partehartzean oinarrituta.

# LA RELACIÓN ENTRE ALUMNO Y PROFESOR, LO MAS VALORADO POR LOS ESTUDIANTES ERASMUS



ARGAZKIA: J. ARANZABAL

MUNIVERSITAS HA ESTADO CON ANTOINE VIGNEAU (FRANCIA), EMILIA CHELADZE (POLONIA), TINA KARVONEN (FINLANDIA) Y SANNE JEHOUL (BÉLGICA). CUATRO ALUMNOS QUE HAN REALIZADO EN MONDRAGON UNIBERTSITATEA SU PRIMERA EXPERIENCIA ERASMUS

**ANTOINE VIGNEAU** llegó en septiembre a la Escuela Politécnica Superior, y durante el primer semestre ha realizado sus estudios de Ingeniería Informática. Procedente del INSA de Toulouse, califica su experiencia como muy positiva. "Ha sido mi primera experiencia, y estoy muy contento. Lo que más me ha sorprendido ha sido la relación entre profesores y alumnos". Asegura Antoine que en Francia, esa relación es muy diferente y mucho menos cercana que en MU. Aunque procede de Toulouse, Antoine reside en Baiona, "por lo que conozco muy bien este país. No conocía Mondragón, pero durante mi estancia he conocido todo el valle, Vitoria, Mundaka, Zarautz… y, además, he acudido al euskaltegi". Por todo ello, está satisfecho de haber venido a MU y "recomiendo a mis compañeros de Toulouse que vengan y prueben, porque está muy bien".

**EMILIA CHELADZE** procede de Polonia, de una ciudad llamada Torun, al norte de Varsovia. Está cursando estudios de Diseño Industrial, y aunque vino con la idea de realizar aquí el primer semestre del curso, se quedará hasta julio. "Mi idea es quedarme todo el curso en Arrasate. Me gusta mucho, sobre todo la actitud de los profesores hacia nosotros. Tenemos toda la confianza y ayuda que requerimos". "A diferencia de Polonia, la universidad no cierra, las salas de ordenadores, las aulas… están abiertas todo el tiempo, y eso es muy bueno".

"El horario es diferente, tenemos menos clases que en Polonia, pero aprendemos el idioma, tenemos ocasión de conocer el país, y todo eso es positivo", asegura Emilia, que, además de los estudios, ha visitado varias ciudades, y está muy interesada en la cultura y las costumbres de Euskal Herria.

**LAU IKASLE, LAU ESPERIENTZIA ABERATS**

Erasmus ikasleek esperientzia aberatsa bizi izan dute Mondragon Unibertsitatean. Batzuk bueltatu egingo dira praktikak egitera, eta beste askok luzatu egin dute euren egonaldia.

**TINA KARVONEN** Llegó el 1 de septiembre a HUHEZI y volvió a Finlandia en Navidades. "He estado muy a gusto, y me ha dado mucha pena volver". Su experiencia ha sido muy positiva, y ya piensa en venir aquí a realizar las prácticas. Procede de la Oulu University de Finlandia, y asegura que la cantidad de horas lectivas es muy diferente en su universidad de procedencia y en MU. "Tenemos clases, pero no tantas como en Finlandia. Allí comenzamos a las ocho de la mañana, y hasta las cinco no terminamos. Aquí terminamos a la 13:00 y el resto del día aprovechamos, o para realizar trabajos individuales, o para hacer prácticas". Asegura Tina que en Finlandia la relación entre profesores y alumnos es también bastante cercana, similar a la de MU.

Respecto a su estancia entre nosotros, Tina ha convivido con otros alumnos de Erasmus en un piso de Aretxabaleta, ha realizado sus prácticas en Kurtzebarri eskola, y, además, ha tenido tiempo de conocer Euskadi. "Teníamos alguna referencia del País Vasco, pero ha sido descubrir todo. Bilbao, Getxo, Zarautz… me ha gustado mucho este país".

**SANNE JEHOUL** ha realizando estudios de Comunicación Audiovisual en la Facultad de Eskoriatza. Llegó en septiembre y ha estado durante el primer semestre. "La primera gran diferencia es el horario de las clases, en Bélgica tenemos muchas más horas de clase que aquí. La relación entre profesores y alumnos también es completamente diferente, en Eskoriatza es una relación muchísimo más cercana".

Asegura Sanne que al principio pensaba ir a una ciudad más grande, pero decidió venir a Mondragon Unibertsitatea, "una universidad y una ciudad mucho más pequeña, y eso me ha dado la oportunidad de conocer muchísimo mejor la cultura y la gente de este país".

# ETENGABEKO IKASKUNTZA BULTZATZEKO HELBURUAREKIN SORTU DA MU ON LINE

DEBAGOIENEKO HIRU FAKULTATEEK ELKARLANEAN ABIARAZITAKO EGITASMOA DA MU ON LINE. PROIEKTU BAT MONDRAGON UNIBERTSITATE OSORAKO. HELBURU GARRANTZITSUENA DA ETENGABEKO IKASKUNTZA ETA IRAKASKUNTZA BULTZATZEA. ERA BEREAN, PERTSONEN INTERES ETA BALDINTZEI ERANTZUNGO DIE



ARGAZKIA: MU

**MU ON LINE, NUEVA OFERTA DE NUESTRA UNIVERSIDAD**

Impulsar la formación contínua y facilitar el acceso a los estudios universitarios a aquellas personas con dificultad de acudir a la universidad por cuestiones de trabajo, son los objetivos principales de MU on line.

Gizarte eskaera berri bati erantzuten dio MU on line proiektuak. Egitasmoaren jatorria dago 2008-2012 plan estrategikorako egin zen hausnarketan. Orduan ikusi zen MU zegoela begira batez ere graduko ikasketei eta ikasle gazteei. Hau da, eskaintza presentzialera bideratuta zegoela MUren eskaintza. Horregatik identifikatu ziren on line ikasketak. Gainera, "aro digitalak" eskaintzen dituen aukera berrietara moldatzea estrategikoa da.

## SORRERA 2008AN

2008-2009 ikasturtean jarri zen abian proiektua. MUko proiektua izanik, egitasmoari hasierako bultzada emateko, hiru fakultateen artean lan-talde bat osatu zen. Merkatu azterketa burutu, eredu pedagogikoa eta teknologikoa garatu, on line eskainiko diren esperientzia pilotuak identifikatu, behar tekniko eta akademikoak identifikatu, eta beste zenbait lan egin ziren. Lanok garatu eta proiektuak kudeatzeko Edurne Galindez Nafarrate izendatu berri dute MU on line proiektuaren koordinatzaile.

## ESPERIENTZIA PILOTUAK

Ikasturte honetan eta hurrengoan hiru esperientzia pilotu eskainiko dira. Goi Eskola Politeknikoan 2010eko martxoan hasiko da Industria Antolaketako Ingeniaritza Gradua. Gaztelaniaz eskainiko da on line, baina erdipresentziala izango da. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultatean ECOMU Masterra (Master Universitario en Educación en Contextos Multiculturales y Plurilingües) eskainiko da 2010eko irailetik aurrera.

Bi hizkuntzatan eskainiko da masterra, euskaraz eta gaztelaniaz, eta guztiz on line izango da. Enpresagintza Fakultatean, berriz, Master Oficial en Gestión de Empresas Cooperativas eskainiko da, baita 2010eko irailetik aurrera.

## PROIEKTUAREN HELBURUAK

Hainbat dira proiektuaren helburuak, baina garrantzitsuena da MUko campusetara hurbiltzeko zailtasunak dituzten pertsonei ikasketak garatzeko aukera eskaintzea; ordutegia, erritmoa, intentsitatea eta lan egiteko tokia aukeratu ditzan. Zehatzago, ikasleari ikasketak eta lana aldi berean garatzeko aukera ematea eta lanean dauden pertsonak bere ikasketak sakontzen jarraitzea ahalbidetzen ditu MU on linek. Mondragon Unibertsitateko on line egitasmoan ikaslea izango da bere ikaskuntza prozesuaren ardatza, eta jarduerek ikaslearen erabakitzeko aukera bermatuko dute. Hortaz, ikaskuntza autonomorako (denboraren kudeaketa, informazioaren bilaketa, antolaketa, auto-erregulazioa...) konpetentziak garatuko ditu ikasleak bere ikaskuntza prozesua aurrera eramateko. Irakasle-tutorea beste irakasle eta profesional batzuekin elkarlanean arituko da (eduki eta materien prestaketa, multimedia eta kudeaketa) kalitatezko irakaskuntza bat antolatzeko.

Eredu horren zerbitzura egongo den Eredu Teknologiko berri bat definitu, garatu eta aurrera eramatea da bigarren azpi-helburua. Eredu hau malgua eta irekia izango da eta IKT berriak gehitzea baimenduko du. Hiru fakultateetan ezaguna den Moodle plataforma erabiliko da, eta on line ikasle eta irakasleen arteko komunikazioa erraztuko duen "bideo konferentzia" aukerak ere gaineratuko zaizkio. Egitasmoaren beste azpi-helburu batzuk edukiak sortu eta kudeatzeko prozesua diseinatu eta garatzea, komunikazio eta kaptazio planak diseinatzea, idazkaritza akademikoa egokitzea eta irakasleen formazioa garatzea dira.

# EZAGUTZAREN GARAPENA ASKOTARIKO TESIETAN

GOI ESKOLA POLITEKNIKOAN, ENPRESAGINTZA FAKULTATEAN ETA HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEAN ASKOTARIKO TESIAK IRAKURRI DITUZTE AZKEN HILABETEOTAN. EZAGUTZAREN, IKERKETAREN ETA LANAREN GARAPENAREN ERAKUSLE DIRA GUZTIAK

Mariam Bilbatua HUHEZIko irakasleak bere doktore tesia defendatu zuen Donostian, EHUren Pedagogia Fakultatean, eta bikain cum laude jaso zuen. Mariam Bilbatuak egindako ikerketak hainbat galdera argitu nahi izan ditu, guztiak ere eskola testuinguru zehatzean kokatzen direnak; hain zuzen ere, murgiltze ereduko 5 urteko haurren lau gelatan. Horien irakurketa eta idazketa analizatu ditu. Ikertzaileak argitu nahi izan du zelan gertatzen den aipatu prozesua.

Diana Varelak eta Izaskun Agirrek ere, biak Enpresagintza Fakultatekoak, bikain cum laude jaso zuten euren tesien defentsan. Varelak intraemprendimiento izeneko joera aztertu du. Ikertzailearen esanetan, joera horrekin lana sortzeaz gainera, ongizatea eta herrialdeen garapena ere sortzen da. Ikerketa egin du Mondragon Taldeko estatuko enpresa batzuetan eta Kolonbiako beste eskualde bateko enpresa batean. Agirrek, berriz, enpresa kooperatiboetan dagoen merkaturako orientazioa aztertu du, Mondragon taldeko industria arloko zenbait enpresatan ikerketak eginez.

Goi Eskola Politeknikoan, berriz, askotariko irakurketak egin dira azken hilabeteotan. Horien artean, Inge Isasa, Nekane Errasti, Mikel Zubieta, Juanan Arrieta, Ivan Arriola eta Iñigo Llanosek defendatu dituzte euren tesiak. Ivan Arriolak, esaterako, mekanizazio graduak aztertu ditu burdingintzan. Besteak beste, tesiaren egileak zenbait neurketa egin ditu University of North Carolinan, National Institute of Standars and Technology-n eta Goi Eskola Politeknikoan.

## HUHEZI

### IRAKASLE-IKASLE ETA IKASLEEN ARTEKO INTERAKZIOAK



**MARIAM BILBATUAK**
Irakasle-ikasle eta ikasleen arteko interakzioak aztertu ditu irakurketa eta idazketaren ikaste prozesuaren hastapenetan.

Ikerketa honen bidez argitu nahi diren galderak eskola testuinguru zehatz batean kokatzen dira, irakurketa idazketaren ikaste prozesuan dihardūten murgiltze ereduko bost urteko haurren lau geletan. Prozesu hau nola gertatzen den argitu nahi izan da, deskribatu dugun prozesuarekin lotu ditugu ikerketa honen galdera nagusiak. Planteatzen diren galderak, ikaste prozesua azaltzeko ikuspegi zehatz bati lotuta daude, sozio-konstruktibismoa deritzan ikuspegiari.

## ENPRESAGINTZA

### ORIENTACIÓN AL MERCADO DE LA COOPERATIVA



**IZASKUN AGIRRE**
La autora analiza la orientación al mercado en la organización cooperativa. Realizando una aplicación empírica en los negocios del área industrial del Grupo Mondragón.

Este trabajo pretende analizar la influencia en el grado de orientación al mercado desarrollado por los negocios cooperativos de un conjunto de antecedentes ligados a las características idiosincrásicas de las cooperativas. En segundo lugar, se busca comprobar los efectos de la orientación al mercado en los resultados empresariales y el efecto del compromiso organizacional, como variable moderadora, en la relación orientación al mercado y los resultados.

## ENPRESAGINTZA

### CARACTERIZACIÓN DE LOS INTRAEMPRENDIMIENTOS



**DIANA VARELA**
La autora de la tesis analiza la caracterización de los intraemprendimientos en empresas de Mondragón en España y de Ibagué en Colombia.

El intraemprendimiento, se encuentra en pleno auge por ser una vía eficaz para la generación de empleo que conlleva al bienestar y desarrollo de las regiones. La presente tesis estudia este propósito desde un enfoque emprendedor, profundizando en aspectos primordiales en el tema del intraemprendimiento; desde una perspectiva teórica a partir de la revisión bibliográfica y una perspectiva práctica desde el desarrollo del estudio de campo.

GEP

## LANZAMIENTO DE NUEVOS PRODUCTOS

El desarrollo de sistemas ingenieriles complejos es parte hoy en día de un entorno de alta competitividad internacional. La presión por disminuir el tiempo y coste de lanzamiento de nuevos productos al mercado hace que se requieran fases optimizadas de test y protocolos de simulación. El proceso de desarrollo de producto se caracteriza por una serie de decisiones que se tienen que tomar teniendo en cuenta la incertidumbre del sistema y su entorno, además del riesgo de un fallo potencial del mismo.



**INGE ISASA**
La autora de la tesis investiga en el campo del lanzamiento de nuevos productos, analizando la disminución de tiempo y coste.

GEP

## MEKANIZAZIO GRADUAK BURDINGINTZAN

Tesi hau bi AISI 4140 altzairuren (AISI 4140 Estándar eta AISI4140 MECAMAX® PLUS), antzerako material basea baina inkluzio ezberdinak dutenen arteko mekanizazio gradu ezberdintasuna, burdingintza industrian V15 entseguak eginaz ikusi dena, ulertzean datza.

Teknika esperimental aurreratuen bidez *in-process* aldagaiak aztertu dira. Mekanizazio gradua eta *in-process* aldagaiak erlazionatzeko helburu nagusia lortu eta aldi berean, bi altzairuak ezberdin jokatzearen arrazoia ulerterrazago bihurtu.



**IVAN ARRIOLA**
Ivanek zenbait neurketa egin ditu University of North of Carolina-n, National Institute of Standards and Technology-n eta GEPen.

GEP

## EL PROGRAMA AGENDA Y LA INNOVACIÓN

Esta tesis consiste en determinar el efecto de la ubicación y del programa agenda de innovación respecto a los resultados de una empresa, así como definir estrategias que le permitan mejorar sus resultados en este ámbito, y evolucionar de un estatus innovador a otro superior. Se ha desarrollado un cuestionario que por medio de entrevistas a los directores gerentes de diversas empresas, ha permitido contrastar la no existencia de un efecto significativo de la ubicación, ni del programa agenda.



**NEKANE ERRASTI**
Analiza el impacto del programa agenda en el caso de las empresas industriales y propone un modelo estratégico para la innovación.

GEP

## MECANIZADOS INDUSTRIALES

La presente tesis ha abordado la reproducción de mecanizados industriales en cuanto a la integridad superficial generada en los componentes mecanizados mediante técnicas de simulación empleando el método de los elementos finitos, así como ensayos experimentales en laboratorio. Los trabajos de simulación parten de modelos de mecanizado ortogonal en 2D debido a su mayor sencillez en comparaciones a modelos 3D.



**IÑIGO LLANOS**
ha comparado los resultados obtenidos, tratando de identificar el más adecuado para la simulación de la integridad superficial generada en piezas mecanizadas.

GEP

## ADIMEN LEHIAKORRA AZTERGAI

Tesi honek Adimen Lehiakorraren kontzeptua arakatzen du, organizazio baten lehiaketa-ingurumeneko aukera, mehatxu eta arriskuak identifikatzeko tresna bezala, eta ondorengo erabaki estrategikoak hartzeko prozesuaren hobekuntza nabarmen modura. Proposatzen den modeloak, bibliografian aurkitu ez den ikuspuntu global, holistiko eta integratzaile bat dakar. Espainiar adituen komunitatearekin eginiko kontraste batek, faktore kritikoak identifikatzea posible egin du.



**JUANAN ARRIETA**
Autoreak aztertzen du nola optimizatu enpresako erabaki estrategikoak adimen lehiakortasunaren bitartez.

GEP

## MODELO FISICO DEL FLUIDO MAGNETOREOLÓGICO

En esta tesis doctoral se desarrolla un modelo físico que relaciona el fluido magnetoreológico (MR) con el comportamiento del amortiguador MR. Para ello se han desarrollado nuevos métodos de caracterización y nuevos modelos para el fluido MR y el amortiguador MR. Los resultados obtenidos han servido para la comprensión del comportamiento interno de los amortiguadores MR, estableciendo nuevas pautas de diseño para optimizar su funcionamiento.



**MIKEL ZUBIETA**
Ha realizado un análisis Magnetohidrodinámico de un amortiguador magnetoreológico: Caracterización experimental y modelo físico.

KIROLA

# KIROL TXAPELKETAK

MU-KO KIROL ETA OSASUN ZERBITZUAK ANTOLATUTA, MU-KO IKASLEEK KIROL TXAPELKETETAN ESKU HARTZEN DUTE URTERO. KIROL MARKA EDO EMAITZA ONENAK DITUZTEN IKASLEAK, BANAKA ZEIN TALDEKA, ESPAINIAKO ESTATUKO UNIBERTSITATEEN ARTEKO FINALERA JOANGO DIRA MARTXOA ETA APIRILA BITARTEAN

Bologna prozesua dela-eta, hilabete bat aurreratu dituzte ikasturte honetako unibertsitateen arteko txapelketak. Hala, ikasturte honetan ezin izan dute aurreko urteetan beste ikaslek esku hartu. Lehenik eta behin, MUko hiru fakultateetan txapelketak egin zituzten; horren ostean, MUko txapeldunak aukeratu zituzten; eta otsailaren 9an EAE-ko unibertsitateen finala egin zuten, Deustukoak antolatuta. Barakaldon, Deustun eta Errekalden, MU, EHU eta Deustuko ikasleak lehiatu ziren. Azkenean, MUtik 100 bat ikaslek esku hartu zuten, beste batzuetan baino kopuru txikiagoa; horren arrazoia, azterketak eta lesioak. Hala ere, lehiaz gain, kirolaren jaia ere bada, eta elkar ezagutzeko bidea ere badu egun horrek.

## KIROL MODALITATEAK

MUk orain arte parte-hartzaileak izan ditu triatloian, esgriman, arku tiraketan, atletismoan eta badminton-ean, besteak beste. Eta talde kirolei dagokienez, ohikoa da nesken eskubaloi eta areto futbol taldeak sortzea, baita mutilen errugbikoak ere. Hala ere, talde kirolen kasuan, kontuan hartu behar da ikasleek astebetez ez dutela eskolara joaterik izaten, eta horrek erabat baldintzatzen du taldeak egitea.

Kirol zerbitzuko arduradun den Gorka Martinez de la Hidalgak oraindik ez daki MUko ikasleek Espainiako Estatuko finalean zein modalitatetan lehiatu ahal izango diren. Triatloian lortuko dutela uste du, baita igeriketan eta badmintonen ere; baina zalantzan dira oraindik karatea eta beste batzuk.

MUko kirol eta osasun zerbitzuko Gorka Martinez de la Hidalga izan dugu unibertsitate arteko txapelketen gaineko hizlari.

## FEDERATUAK ERE ONGIETORRIAK

Ikasleen artean kirolari federatuak egon ohi dira, baina hori ez da arazoa izaten; alderantziz. “Entrenatzaile batzuek kirolariei esaten diete unibertsitate arteko txapelketan ere parte hartzeko, animatu egiten dituzte. Salbuespen bakarra errugbikoa da, lesioen beldur egoten direlako”. Are gehiago, Martinez de la Hidalgak argitu digu Estatuko finalera begira, antolatzaileek banakako modalitatetan gutxieneko marka edo denborak eskatzen dizkietela eta hori askotan federatuek bakarrik lor ditzakete.

## DOMINAK

Aurtengo unibertsitateen arteko txapelketa 10.a da, baina Martinez de la Hidalgak ez daki MUko ikasleek dominarik ekarriko dituzten. “Gurea unibertsitate txikia da, baina esgriman eta atletismoan, esaterako, ia beti ekarri izan dugu dominaren bat; ikusi egin behar”.




ARGAZKIA: J. ARANZABAL

# MUITTU, IKASGELATIK KANPOKO BIZITZA UNIBERTSITARIOA INDARTZEKO



ARGAZKIA: J. ARANZABAL

**AISIALDIA** MUittuko koordinatzaile Mikel Aranburu (ezkerrean) eta Biteri ikastetxe nagusiko dinamizatzaile Iñaki Aranburu (eskuman) Tolosako Aratusteetara joateko prest zeuden ikasle batzuekin.

GOI ESKOLA POLITEKNIKOAN KULTURA, KIROLA ETA BESTE EKIMEN ASKO EGITEN DIRA. BITERI IKASTETXE NAGUSIA IZAN DA BULTZATZAILE NAGUSIA, BAINA MU-KO KIROL ZERBITZUAK, KULTURA BEKADUNAK ETA IKASLEEN KONTSEILU SOZIALAK ERE HAINBAT ANTOLATZEN DITUZTE. MUITTUK GUZTIAK BATZEN DITU

Goi Eskola Politeknikoan eta orokorrean MUn ikasle asko ibiltzen dira hara eta hona egunerokoan, baina bada ekimenik ikasgeletatik kanpo? Hori da askok duten kezka, eta Goi Eskolako hainbat eragilek urteak daramatzate horri erantzuna ematen. Biteri ikastetxe nagusia, Kultura bekaduna, kirol eta osasun zerbitzua eta ikasleen kontseilu soziala dira bakoitza bere kabuz ekimenak bultzatzen ibiltzen direnak. Eta guztien helburua bera da: ikasgelaz kanpoko bizitza unibertsitarioa suspertzea, formazio kutsua emanez.

Bada, 2009ko irailean, ekimen horiek guztiak batu eta koordinatuko dituen ekimena hastea erabaki zuten: MUittu. Asmoa da eragile guztien aurrekontuak hobeto kudeatu, aktibitateak baliabide eta denborari dagokionez hobeto kudeatu eta indarrak metatu. Horrez gain, baina, eragile bakoitzak bere autonomia izango du erabakiak hartzeko.

## MU OSORA HELTZEA

Irailean sortu eta urrian jendaurrean aurkeztu zuten MUittu plataforma, Pou anaiekin antolatutako hitzaldiarekin. Hala, astelehenero batzartzen dira MUittuko koordinatzaile Mikel Aranburu, Biteri ikastetxe nagusiko dinamizatzaile Iñaki Aranburu, Kultura bekadun eta aldi berean ikasleen kontseilu sozialeko idazkari den Pablo Sal eta kirol eta osasun zerbitzuko kide Gorka Martinez de la Hidalga. Eragile bakoitzak dituen asmoak elkarri ezagutzera eman eta ekimen bateratuak aztertzen dituzte, besteak beste. Bestalde, Goi Eskola Politeknikoko, Enpresagintza Fakultateko eta HUHEZIko arduradunek begi oso onez ikusi dute ekimena; eta jakitera eman dute kulturarekin eta aisialdiarekin lotuta bestelako ekimenik egiteko asmoa badute, MUitturekin harremanetan jarriko direla. Azken finean, hori da MUitturen asmoa, MU osora heltzea.

## BITERI IKASTETXEA, MOTORRA

Orain arte kirol eta osasun zerbitzua eta Biteri ikastetxe nagusia izan dira ekimen gehien antolatu dituztenak. Ikastetxe nagusian, esaterako, urtero hainbat hitzaldi eta ikastaro egiten dituzte. Horien artean, badira mota askotakoak: argazkilaritza, zeinu hizkuntza, kiromasajea, bertsoak, ahozko komunikazioa, yoga… Horrez gain, ikastetxeko sotoan bi musika taldek eta perkusioa egiten duten gazte batzuek ere entseatzen dute.

Urtean zehar ere izaten dira bestelakoak: ikasturte hasieran, adibidez, mendi irteerak, Alecopera eta Fagorrera bisitak eta beste egiten dituzte. “Hasieran guk antolatzen ditugu ekimenak; horren ostean, zer egin dezaketen azaltzen diegu, beraiek ideiak proposatu eta aurrera ateratzeko lana egin dezaten”, azaldu zigun Mikel Aranburuk MUittu koordinatzaileak.

Ekimenek erantzuna izaten dute, baina MUittuko arduradunek nahi dute ikasleek iniziatiba handiagoa hartzea. “Bide batez, dibertitzeaz gain, komunikatzen, taldelanean, erabakiak hartzen eta arazoak saihesten ikas dezakete; eta hori oso garrantzitsua da”.

AGENDA

## OTSAILA

■ ATE IREKIEN JARDUNALDIAK
Otsailaren 25ean, 17:30ean, Goierrin.

■ PROYECTOS FIN DE CARRERA
Abierto el plazo para las empresas interesadas en Proyectos Fin de Carrera de Larga Duración.

■ ESTANCIAS EN EL EXTRANJERO
Abierto el proceso de selección de los alumnos que quieran realizar una estancia en el extranjero durante el presente curso.

## MARTXOA

■ KOMUNIKALDIAK
Martxoaren 10ean Komunikaldiak egingo dira HUHEZIn. Gaia: Telebista interneten.

■ ATE IREKIEN JARDUNALDIAK
Martxoak 6an, 10:00etatik 13:00etara, Oñatin.
Martxoaren 11n, 17:30ean, Arrasaten.
Martxoaren 11n, 18:00etan, Eskoriatzan.
Martxoaren 25ean, 18:00etan, Bidasoan.

## APIRILA

HUHEZINEMA apirilaren 27tik 29ra.
Lanak aurkezteko epea martxoaren 12an amaituko da.

■ ATE IREKIEN JARDUNALDIAK
Apirilaren 24an, 11:00etan, Arrasaten.
Apirilaren 17an, 11:00etan, Goierrin.
Apirilaren 22an, 18:00etan, Eskoriatzan.

■ DIPLOMA BANAKETA ARRASATEN
Apirilaren 30n 1.zikloko Diploma Banaketa.

## MAIATZA

■ ATE IREKIEN JARDUNALDIAK
Maiatzaren 6an, 17:30ean, Arrasaten.
Maiatzaren 6an, 18:00etan (2.zikloa), Bidasoan.
Maiatzaren 8an, 11:00etan, Eskoriatzan.
Maiatzaren 13an, 18:00etan, Oñatin.
Maiatzaren 20an, 18:00etan, Bidasoan.

■ DIPLOMA BANAKETA ARRASATEN
Maiatzaren 7n. 2.zikloko Diploma Banaketa.

## CURSOS DE FORMACIÓN

MONDRAGON UNIBERTSITATEA en colaboración con las tres Cámaras de Comercio vascas ofrece su oferta formativa en : Mondragón, Oñati, Irún, Bilbao, San Sebastián y Vitoria.

- KUDEAKETAN BIKAINTASUNA / EXCELENCIA EN LA GESTIÓN.
- BERRIKUNTZA ETA EKINTZAILETASUNA / INNOVACIÓN Y EMPRENDIZAJE.
- PROIEKTU KUDEKETA / GESTIÓN DE PROYECTOS.
- PERTSONEN KUDEAKETA ETA ZUZENDARITZARAKO TREBETASUNAK / GESTIÓN DE PERSONAS Y HABILIDADES DIRECTIVAS.
- EKOIZPEN INGENIARITZA / INGENIERÍA DE PRODUCCIÓN.
- KALITATE INGENIARITZA / INGENIERÍA DE CALIDAD.
- PRODUKTUAREN INGENIARITZA / INGENIERÍA DE PRODUCTO.
- MANTENTZE-LANEAN KUDEAKETA / GESTIÓN DE MANTENIMIENTO.
- LOGISTIKA INTEGRALA / LOGÍSTICA INTEGRAL.
- MARKETING / MARKETING.
- FINANTZAK / FINANZAS.
- KIROL ERAKUNDEEN KUDEAKETA / GESTIÓN DE ENTIDADES DEPORTIVAS.
- FABRIKAZIO PROZESUAK / PROCESOS DE FABRICACIÓN.
- AUTOMATIZAZIOA / AUTOMATIZACIÓN.
- MATERIALAK / MATERIALES.
- SISTEMA TXERTATUAK / SISTEMAS EMPOTRADOS
- IKT / TICS.

**Informazio gehiago behar baduzu :**
**Más información:**
*www.mondragon.edu/iraunkor*



ARRASATE
TEL.: 943 712 154
SAN ANDRES AUZOA 8.
20500 MONDRAGON
IRUN
TEL.: 943 639 122
LETXUMBORRO IBILBIDEA 89.
20305 IRUN
TOLOSA
TEL.: 943 652 843
INDUSTIALDEA Z/G.
20270 ANOETA
AZPEITIA
TEL.: 943 810 808
LOIOLA IBILBIDEA 20.
20730 AZPEITIA
ELGOIBAR
TEL.: 943 742 755
OLASO INDUSTRIALDEA 17.
20870 ELGOIBAR
CLIO
Bigarren eskuko autoa
CLIO Dynamique 1.5 dCi, 85 CV, 3 ate
9.000 € (2000E. plana barne)
CLIO
RENAULT eco2
AUTOBERRI ESKAINTZA
RENAULT




ETORKIZUNAK KEZKATZEN BAZAITU,
2.0 PROFESIONALAK
ARIZMENDI IKASTOLAREN LANBIDE HEZIKETA
Orain da garaia!
ERDI MAILAKO ZIKLOAK
ERIZAINTZARAKO LAGUNTZA OSAGARRIAK
GOI MAILAKO ZIKLOAK
ERAIKUNTZAKO PROIEKTUEN GARAPENA ETA APLIKAZIOA
GORPUTZ ETA KIROL EKINTZEN ANIMAZIOA
OBRA ETA PLANEN BURUTZAPENA
902 11 20 25
LANBIDE@ARIZMENDI.IKASTOLA.NET
WWW.ARIZMENDI.EU
PRO
Arizmendi
ikastola

*Forma ezberdinak hartuz,*
*erakunde bizi eta dinamikoek baino*
*ez dute egoera berriei egokitzeko ahalmenik.*
*Zelulak bezala,*
*euren artean batu egiten dira*
*ehun sendoak osatuz.*

azk

Branding
eta Komunikazioa

Arrasate - Mondragón
Osinaga 2, 1°
20500 Arrasate - Mondragón
Tel.: 943 712 108
azk@azk-taldea.com

Vitoria - Gasteiz
Boulevard de Salburua 8, Torre 14, 3°B
01002 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 334 122

www.yellowing.net